

Zer ez izan

Doinua: Trumoa ortzi beltzean hoska.

Izengoitia: Hi heu.

1- Munduratuta gizon ta urdin
ez arerio, ez esku-burdin
baina normaren horma bota nahiz
ze erantzukizun gordin. (bis)
Gizon bat izan nahi ez badun zer?
Ta emakumea berdin.
Ertzak ertz, marjinak marjin,
bi izkina hain argi dauzkanak
zentro bat ere behar din. (bis)

2- Hamabost urte dauzkan baldintzan
sexu bat behar al duk balizan?
Ta bi aukera soilik al dauzkak,
galdetegi bat bailitzan? (bis)
Nola bizi nahi duan ez dakik,
baina ez besteen gisan,
garrantzitsu duk bizitzan
zer izan ziur jakin ez arren
jakitea zer ez izan. (bis)

3- Norma zelatan dun bebarruan,
herori ere gutxi barru han
ta amorrua nagusitzen zain
gizarteko amarruan. (bis)
Antza, haizena juzgatuko dun
dunanaren esparruan,
bihotz-buruak larruan.
Askea izan haiteke baina
muga batzuen barruan. (bis)

4- Psikiatra bat ta bi mediku,
behintzat eskatu izan bahitu...
Hi, baina, ez haiz ez normatibo,
ez LGTBIQ. (bis)
Ordu t'erdiz haiz ez heuzkan dudak
azaleratzen aritu,
amari on iruditu...
zauri bat behar huen ta ez ditek
beste modurik aurkitu. (bis)

5- Trastornatua, transexuala...
badakin hortik deus ez dunala,
mundu dualak, baina, behar din
soluzio bat duala. (bis)
Aurrera egin nahiko dun eta
estutuko zain uhala
eta entzungo dun hala;
normatiboa dena, ordea,
inoiz ez dun naturala. (bis)

6- Inguruetan ikusiz dena
binarismoak zein dik eskema?
Zentrotik kanpo geratzen hi haiz
lehena eta azkena (bis)
ta gauza ez duk eraberritu
al dezakean sistema
onartuz salbuespena,
baizik ta nola bizi daitekeen
sisteman sartzen ez dena. (bis)

7- Galde ororen emaitza etsai,
laguntasunik atean ez zai,
edozein muga izan daiteken
pausoa moteltzeko gai. (bis)
Andre zergatik izan behar dun
gizon ez badun izan nahi?
Arreba edota anai?
Ipar bat izan beharko huke
baina bi hego ere bai. (bis)

8- Malda nahiz eta bihurtu mendi,
psikiatrak nahiz atzetik segi,
zer bihurtzea nahiko ez hukeen
badakik, eta gaitz-erdi! (bis)
Ohituta hago, sortu baihintzen
zentralitateen hegi,
laranja laurdenen erdi;
ta korrontea nekatu arte
jarraituko duk igeri. (bis)